

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

4959

EBAZPENA, 2019ko urriaren 22koa, Kanpo Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita Quebec eskualde estrategikoarekin lankidetza teknikoko proiektuak egiteko laguntzetarako 2019-2020ko deialdia.

Martxoaren 26ko 47/2019 Dekretuaren bidez, Bazkide Estrategikoen Sareko kanpoko eskualdeekin lankidetza teknikoan aritzeko proiektuei laguntzak ematea arautzen da.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren 2019ko uztailaren 10eko Ebazpenaren bitartez, Quebec eskualde estrategikoarekin lankidetza teknikoko proiektuak egiteko laguntzetarako deialdia egin zen 2019-2020rako.

Deialdiaren ebazpeneko 7. artikuluekin bat etorritz horretarako izendatu zen balorazio-batzordeak dirulaguntzak emateko egin duen proposamena aztertuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bazter uztea I. eranskinean ageri den erakundeak aurkeztutako eskabidea, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Bigarrena.– II. eranskinean zerrendatutako erakundeei ematea Quebec eskualde estrategikoarekin lankidetza teknikoko proiektuak egiteko 2019-2020rako laguntzak, eranskinean bertan zehazten diren zenbatekoen arabera.

Hirugarrena.– Dirulaguntzak ukatzea III. eranskinean zerrendatutako erakundeei, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Laugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango da Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 22a.

Kanpo Harremanetarako zuzendaria,
LEYRE MADARIAGA GANGOITI.

2019ko urriaren 28a, astelehena

I. ERANSKINA

BAZTERTUTAKO ESKABIDEAK

Zk.	Erakundea	Proiektua	Baztertzeko arrazoa
9	Zerain Dezagun Fundazioa	Estudio de un hacha encontrada en un pueblo hurón del Canadá	Ez da aurkeztu zein den Quebec eskualdeko bazkidea

2019ko urriaren 28a, astelehena

II. ERANSKINA

ERAKUNDE ADJUDIKAZIODUNAK

Zk.	Erakundea	Proiektuaren izena	Dirulaguntza
1	Deusto Business School	Innovación en Rioja Alavesa	5.000
2	Mintzola Fundazioa	Letrak kantuz-les paroles a voix haute et en chantant	5.000
3	Asociación Cultural Doos Colectivo	Molekula	5.000
6	Sociedad Cultural Rmo	Signal trouvé/seinala arkitu. Quebec-Euskadi	3.624
7	Tacex, Asesoría de Comercio Exterior, S.L.	Wine & Food event	5.000
10	Asociación para la difusión del cine independiente y cine de autor, Begira elkarte	Transvisiona 2	5.000
11	Kalakalab, SC	Gaztefilmfest	5.000
12	Asociación Musical Sinkro	Ensemble sinkro en Quebec	5.000

2019ko urriaren 28a, astelehena

III. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK

Zk.	Erakundea	Proiektua	Puntuak guztira	Ukatzeko arrazoia
4	La Fundicion	Ventana Euskadi-Quebec 2019-2020	19	Puntuazioa ez da nahikoa (47/2019 Dekretuko 10.3 artikulua).
5	Karraskan	Karraskan (Euskadi) y raiq (Quebec) fomentando la colaboración	44	Puntuazioa ez da nahikoa (47/2019 Dekretuko 10.3 artikulua).
8	Asociación de Artistas Artitadetó	Fronteras-programación topo-laboratorio de escrituras y creaciones digitales	44	Puntuazioa ez da nahikoa (47/2019 Dekretuko 10.3 artikulua).
13	Asociación Teinkart elkarte. Asociación para la investigación y divulgación del arte y la cultura	Urki, autour du bouleau	12	Puntuazioa ez da nahikoa (47/2019 Dekretuko 10.3 artikulua).
14	Musikagileak Euskal Herriko musikagileen elkarte	Quebec & Euskadi. musikagileak proiektua	23	Puntuazioa ez da nahikoa (47/2019 Dekretuko 10.3 artikulua).